

GIZA ZIENTZIETAKO UNIBERTSITATE TITULUA

2021/2022 ikasturtea

1.- IKASKETEN PLANGINTZA

2021/2022 ikasturtean ikasketen plangintzak baldintzaturik egoten jarraitzen du, COVID-19ak sortutako egoera dela eta, ez baitakigu nondik nora joango den gaixotasuna. 2021/2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideei buruzko dokumentuan ondokoa irakur daiteke:

“COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko premiazko prebentzio, euspen eta koordinazio neurriei buruzko martxoaren 29ko 2/2021 Legean kautelazko eta babeseko betebeharrak ezartzen da, zeinak UPV/EHU 2021/2022 ikasturtearen planifikazioan eragin zuzena izaten jarraitzen baitu. Ikastegiei dagokienez, honako hau ezartzen du: <<deberá asegurarse la adopción de las medidas organizativas que resulten necesarias para evitar aglomeraciones y garantizar que el alumnado y trabajadores puedan cumplir las indicaciones de distancia o limitación de contactos, así como las medidas de prevención personal que se indiquen por las autoridades sanitarias y administrativas>>”.

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, oraindik ere beharrezkoa da kontu hauek ardura handiz antolatzea eta kudeatzea: sarrera, irteera, eta eraikin barruko zirkulazioa; bertan eman daitekeen denbora; instalazioen eta zerbitzuen erabilera; ikasgeletako edukiera; pertsonen arteko distantziak gordetzea; ikasgelak behar bezala aireztatzea; ikasleek ikasgelako toki bera erabiltzea irakasgai bakoitzerako; eta, oro har, UPV/EHUko ikastegi funtzionamendurako neurrietan jasotako babes, garbitasun eta desinfekzio neurri guztiak aplikatzea.

Irakaskuntza modalitatei dagokienez, 2021/2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideei buruzko dokumentuak honako hau dio “Irakaskuntzaren egokitzapenak” atalean:

“Gure unibertsitatearen izaera presentziala dela eta, indarreko legedian ezarritako neurriek ahalbidetzen badute, ikastegiak irakaskuntza modalitate presentziala ahal bezainbestekoa izateko planifikazioa egingo dute. Aurreikusten da beharrezkoa izan daitekeela ikaskuntza presentziala eta telepresentziala konbinatzea, baina gomendatzen dugu eskola telepresentzialak soilik ez ematea talde eta lauhileko bakoitzeko 2 irakasgai baino gehiagotan, ezta 15 kreditu baino gehiago ere, master tituluen kasuan, horrek esan nahi du ezingo dela eman ikastaro oso bat modalitate ez-presentzialean.

Gogoratu behar dugu gure unibertsitatea oso behar eta ezaugarri desberdinak dituzten hogeitau ikastegi osatzen dutela; hortaz, datorren ikasturteko planifikazioak ez du zertan berdina izan ikastegi guztietarako, ez ikastegi bereko titulu guztietarako, ez titulu bereko maila guztietarako.”

Hori guztia aintzat hartuta, 2021/2022 ikasturtean Bizkaiko Esperientzia Geletan egingo den irakats jarduera hurrengo ataletan zehazten diren irizpideei lotuko zaie.

1.1.- 2021/2022 IKASTURTEKO IRAKASKUNTZA MODALITATEAK

1.- Presentziala.

Gai bakoitzari dagokion denboraren % 100ean irakasleak eta ikasleak ikasgelan egongo dira aurrez aurre.

Hauek dira 2021/2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideei buruzko dokumentuan agertzen diren jarraibideak irakaskuntza modalitate honetarako:

“Eskola presentzialak lehenestea hasierako mailetan, azken mailen aurrean, non ikasleek autonomia handiagoa eta ikasketak urrunetik jarraitzeko erraztasun handiagoa duten. (...) Espazioak optimizatzea, ikasgelak taldearen tamainara hobeto egokituta, baimendutako edukieraren eta errespetatu beharreko distantziaren arabera.”

2.2.- Presentzialtasun egokitua

Gai bakoitzari dagokion denboraren % 100ean irakasleak ikasgelan egongo dira. Ikasleen kasuan, berriz, % 50 ikasgelan egongo da eta gainerako % 50ak modu telematikoa jasoko ditu eskolak, aldi berean.

Hauek dira 2021/2022 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideei buruzko dokumentuan agertzen diren jarraibideek diotena:

“Taldearen zati bat fisikoki ikasgela batean egotea, eta beste zati bat, berriz, urrunetik konektatzea unibertsitatekanpoan egonda. Kasu horretan, txandak antolatu behar dira bi taldeen artean, modu parekidean (esate baterako, asteka: taldearen erdiek irakaskuntza presentziala jasotzen dute aste batean, eta hurrengoan ez doaz ikastegira eta modu telepresentzian egiten dute lan) (...) Aukeratutako forma garatzeko eGelaren erabilera lehenetsiko da; hortaz, ikasleak erraz sartu ahal izango dira bideokonferentzia saioetara.”

1.2.- 2021/2022 IKASTURTEKO IRAKASKUNTZA MODALITATEAK BIZKAIKO GELETAN

2021/2022 ikasturterako hasiera batean aurreikusita dagoen modalitatea “PRESENTZIALA” da, bai nahitaezko gaietarako bai hautazko gaietarako.

Dena den, osasun egoerak okerrera egingo balu, eta aurreikusitako plangintza aldatu beharko balitz, presentzialtasun egokitua aplikatuko litzaietako maila batzuei edo guztiei. Halakorik gertatuz gero, jakinaren gainean jarriko lirateke ikasleak eta irakasleak behar beste denboraz.

1.3.- IKASGELA BAKOITZAREN GEHIENENKO EDUKIERA 2021/2022 IKASTURTEAN

Beheko taulan agertzen da zein izango den ikasgela bakoitzaren gehieneko edukiera 2021/2022 ikasturtean.

IKASGELA	GEHIENENKO EDUKIERA
1	36
2	38
3	16
4	25
5	36
6	25
7	40

1.4.- MAILA BAKOITZEKO TALDE KOPURUA ETA IRAKASGAI MOTA 2021/2022 IKASTURTEAN

IRAKASGAI MOTA	MAILA		
	1. maila	2. maila	3. maila
Nahitaezkoa	2	2	2
Hautazkoak (4. maila eta gainerakoak)	25 talde		

1.5.- 2021/2022 IKASTURTEKO ORDUTEGIAK

Nahitaezko irakasgaiak

Nahitaezko irakasgaiak astelehenetan, asteazkenetan eta ostegunetan emango dira maila guztietan (1., 2. eta 3. mailak).

Nahitaezko irakasgai horien ordutegiak hauek izango dira:

Ordutegiak

MAILA	ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTEGUNAK	
1. maila	10-11,15	11,45-13,00
2. maila	10-11,15	11,45-13,00
3. maila	10-11,15	11,45-13,00

Hautazko irakasgaiak

Hautazko irakasgaiak astearte eta ostiraletan emango dira.

Hautazko irakasgai horien ordutegiak hauek izango dira:

Ordutegiak

MAILA	ASTEARTE ETA OSTIRALAK		
Maila guztiak	9.00-10,15	10,45-12,00	12,30-13,45

1.6.- 2021/2022 IKASTURTERAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Gai bat gainditzeko, funtsezko eta ezinbesteko baldintza da ikaslea gai horren aurrez aurreko eskolen % 80ra agertzea gutxienez. Bestela esanda, ikasleek huts egin dezakete gai bakoitzeko aurrez aurreko eskolen % 20 justifikaziorik aurkeztu gabe. Eskola gehiago galduz gero, baina, ezin izango dute irakasgai hori gainditu.

2.- Irakasgai bat gainditzen ez badute, NAHITAEZKOA izan nahiz HAUTAZKOA izan, hurrengo ikasturtean edo tituluko maila guztiak amaitutakoan matrikulatu ahal izango dira berriro irakasgai horretan.

1.7.- 2021/2022 IKASTURTEKO IRAKATS ESKAINTZA

Ikasketa planean nahitaezko eta hautazko irakasgaiak daude. 1., 2. eta 3. mailako ikasleak matrikulatu behar dira dagozkien nahitaezko irakasgaietan eta, horretaz gain, hautazko bi (2) irakasgaitan. 4. mailan ez dago nahitaezko irakasgairik, eta maila horretako ikasleak hautazko sei (6) irakasgaitan matrikulatu behar dira.

Nahitaezko irakasgaiak

Nahitaezko irakasgaien eskaintza bi lauhilekotan banatzen da, bakoitza hamabost astekoa.

Nahitaezko irakasgai bakoitzak 4,5 kreditu dauzka, hots, 45 eskola orduren pareko zama akademikoa gutxi gorabehera.

MAILA	LEHENENGO LAUHILEKOA	BIGAREN LAUHILEKOA
1. maila	Lengua y Literatura I Salud y Actividad Física Historia del Arte I	Historia Universal I Psicología Elementos y Evolución Hª de la Música
2. maila	Nutrición y Salud Historia Universal II Lengua y Literatura II	Cultura Vasca Historia del Arte II Sociedad, Ciencia y Tecnología
3. maila	Historia Universal III Historia del Arte III Situaciones Sociales y Culturales	Lengua y Literatura III Historia del Pensamiento Económico y Político Conocimiento del Medio: Geografía y Ecología
4. maila	Hautazko hiru irakasgai (aukeratzekoak)	Hautazko hiru irakasgai (aukeratzekoak)

Hautazko irakasgaiak

Hautazko irakasgaien eskaintza bi lauhilekotan banatzen da, bakoitza hamabost astekoa.

Hautazko irakasgai bakoitzak 4,5 kreditu dauzka, hots, 45 eskola orduren pareko zama akademikoa gutxi gorabehera.

1., 2. eta 3. mailako ikasleek lauhileko bakarrean egin ditzakete hautazko irakasgaiak, edo bi lauhilekotan. 4. mailako ikasleek hautazko hiru (3) irakasgai egin beharko dituzte lauhileko bakoitzean.

Lehenengo lauhilekoko eskaintza

EGUNAK	IRAKASGAIA	IKASGELA / PLAZAK	ORDUTEGIA
ASTEARTE ETA OSTIRALAK	Globalización Económica y Desigualdad	1 ikasgela / 36	9,00 – 10,15
	La evolución Humana desde la biología	2 ikasgela / 38	
	El nuevo lenguaje económico	5 ikasgela / 36	
	Cuestiones de actualidad de la protección social	4 ikasgela / 25	10,45 – 12,00
	Explorando el cuerpo humano	1 ikasgela / 36	
	Unión Europea: política y economía	7 ikasgela / 40	
	Correo Electrónico www	3 ikasgela / 12	
	Los otros caminos hacia la historia	2 ikasgela / 38	
	El siglo XIX: pintura, escultura, música	7 ikasgela / 40	12,30 – 13,45
	Derecho e interculturalidad	1 ikasgela / 36	
	Como son los materiales que nos rodean	5 ikasgela / 36	
	Medicamentos y Sociedad	2 ikasgela / 38	

Bigarren lauhilekoko eskaintza

EGUNAK	IRAKASGAIA	IKASGELA / PLAZAK	ORDUTEGIA
ASTEARTE ETA OSTIRALAK	Política vasca	7 ikasgela / 40	9,00 – 10,15
	El nacionalismo alemán 1920-1933	1 ikasgela / 36	
	Procesos sociales en un mundo global	5 ikasgela / 36	
	Informática Práctica: excell y ppt	3 ikasgela / 12	
	Matemáticas en la vida cotidiana	2 ikasgela / 38	
	Hª Económica de Euskal-Herria	1 ikasgela / 36	10,45 – 12,00
	La vida cotidiana en Roma	7 ikasgela / 40	
	Hª de la integración europea	5 ikasgela / 36	
	Desarrollo y Cooperación Internacional	2 ikasgela / 38	
	Lenguas y Escrituras en la antigüedad	4 ikasgela / 25	
	Cambio Social y Educación. Educación en el País Vasco	1 ikasgela / 36	12,30 – 13,45
	La Prensa: tecnología y diseño	7 ikasgela / 40	
	Salud On Line	2 ikasgela / 38	

2.- IRIZPIDEAK ETA TRAMITE ADMINISTRATIBOAK

2.1.- LEHEN MAILAN IZENA EMATEKO PROZESUA

Izena emateko prozedura

Lehen mailan izena emateko eskaria Internetez egin behar da, Bizkaiko Esperientzia Gelen web orriaren bidez.

Plaza kopurua

Hirurogeita hamabi (72) plaza eskaintzen dira guztira.

Izena emateko baldintzak

- 55 urte beteta izatea 2021eko urriaren 1a baino lehen.
- Erretiratua edo antzekoa izatea, edo etxeakoandrea edo etxegizona izatea.

Izena emateko epea

Ekainaren 1etik 15era

Izena emateko prozesuan onartutako eskariak

Izena emateko prozesuan onartutako eta baztertutakoen zerrenda Esperientzia Gelen web orrian argitaratuko da, ekainaren 17tik aurrera.

Behin betiko onarpena

Lehen mailarako eskainitako plazak izena eman duten pertsonen artean banatuko dira, ekainaren 25ean, ostirala, egingo den zozketaz.

Behin betiko onartutako pertsonen zerrenda eta itxaron zerrenda Bizkaiko Esperientzia Gelen web orrian argitaratuko dira zozketaren osteko egunetan.

2.2.- LEHENENGO, BIGARREN, HIRUGARREN ETA LAUGARREN MAILETARAKO HITZORDUA

Prozedura

Ikasleek telefonoz deitu beharko dute ikastegiko idazkaritzara eta hitzordua eskatu matrikula irailean egiteko.

Interesdunek eurek eskatu beharko dute hitzordua. Ez zaio inori hitzordu bat baino gehiago emango, eta ezin izango da eskatu interesduna ez den beste inorentzako hitzordurik.

Telefono honetan bakarrik emango da zerbitzua: [946017864](tel:946017864).

Hitzordua eskatzeko egunak eta orduak

1. maila: irailaren 1ean (asteazkena, 8:00etatik 13:00etara)
2. maila: ekainaren 23an (asteazkena, 8:00etatik 13:00etara).
3. maila: ekainaren 22an (asteartea, 8:00etatik 13:00etara).
4. maila: ekainaren 21ean (astelehena, 8:00etatik 13:00etara).

2.3.- MATRIKULA EGITEKO DATAK ETA EPEAK

4. maila	irailaren 2a, 3a, 6a eta 7a
3. maila	irailaren 8a, 9, 10a eta 13a
2. maila	irailaren 14a, 15a eta 16a
1. maila	irailaren 22a, 23a, 24a eta 27a

Matrikula egiteak berarekin dakar onartzea dokumentu honetan ezarritako baldintza guztiak ("Ikasketen plangintza" eta "Irizpideak eta tramite administratiboak") Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua egiteko.

2.4.- 2021/2022 IKASTURTERAKO TASA AKADEMIKOAK

Prezioa

Kreditu bakoitzaren prezioa, edozein mailatakoa dela ere, 13,5 euro da.

Ordaintzeko baldintzak

Matrikula epe bakarrean ordainduko da. (Aukera dago BBKren finantzaketa berezia lortzeko. Galdetu BBKren edozein bulegotan).

Matrikulako prezioaren % 50eko murrizpena dago 1. kategoriako familia ugariarentzat (familia ugariaren liburu eguneratua aurkeztu behar da). Era berean, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten ikasleak eta terrorismo ekintzen eta genero indarkeriaren biktimak salbuetsita daude matrikula ordaintzetik.

Bekak

Ikasteko laguntzak ere eska daitezke (matrikularen prezioaren % 50). Matrikulatzeko garaian, ikasleek informazio zehatzagoa jasoko dute.

2.5.- ESKOLA EGUTEGIA

Lehenengo lauhilekoa	2021eko urriaren 4tik 2022ko urtarrilaren 28ra.
Bigarren lauhilekoa	2022ko urtarrilaren 31tik 2022ko maiatzaren 27ra.
Neguko oporrak	2021eko abenduaren 23tik 2022ko urtarrilaren 9ra.
Udaberriko oporrak	2022ko apirilaren 11tik 24ra

Ez dira eskola egunak izango Eusko Jaurlaritzak finkatutako udalerriko eta autonomia erkidegoko jaiegunak, eta UPV/EHUko lan egutegian onartutakoak.

PRESTAKUNTZA EGUNERATZEKO IKASTARO OSAGARRIAK I ETA II 2021/2022 IKASTURTEA

2021/2022 ikasturtean ez dira emango Prestakuntza Eguneratzeko Ikastaro Osagarriak I eta II.

Ikastaro osagarri horien ordez beste jarduera batzuk eskaintzea aztertzen ari gara eta, seguruenez, 2022ko otsailetik aurrera jarriko dira abian.